
SEHASKA



Joxe Miel Iztueta
Lazkao Txiki (1926-1993
Lazkao, Gipuzkoa)

Doinua: Nere sehaska oraindik ere
Neurria: Zortziko handia (hg). Lau puntuko handia (ip)
Testuaren iturria: Jose Migel Iztueta "Lazkao Txiki". 1994. Irriz eta malkoz. Auspoa. 442 or.

1980an, Zestoan (Gipuzkoan) Azpillaga bertsolariari eginiko omenaldian, gai hau jarri zioten Lazkao Txikiri hiru bertso kantatzeko: Sehaska.

Lazkao Txiki hil ostean argitaratu zen "Irriz eta malkoz" liburua, berari jasotako testigantzak jasotzen zituena, eta bertan argitaratu ziren bertso hauek ere. Bertsoak ezagun egin zituzten Xabier Lete abeslariak, "200 urtez bertsotan" CD bilduman (2001 Elkarlanean) eta Kupela taldeak, "Gailurrak ikutuz" CDan (2012 Elkarlanean).

1 Nere sehaska oraindik ere
gordea daukat **goguan**
neronek ere zail da esaten
zenbat maitatutzen **nuan**.
Bere gainean ibiltzen niñun*
txoritxo baten **moduan**
karga haundirik ez nuen eta
aixa jasotzen **ninduan**.

2 Ta sehaskari zail da esaten
merezita daukan **dana**
bera da nere lehendabiziko
neskameorde* **izana**.
Haurra nintzala une goxo ta
amets ederrak **emana**
bihotz-bihotzez maitatzen dedan
nere bigarrengo **ama**.

3 Hara ta honuntz astindutzen zan
hotsa jotzen zuen **kun-kun**
aingerutxo bat banintz bezela
gordetzen niñuen **txukun***.
Amak ertzetik kantatzen zuen
gero sehaskak **erantzun**
gaur nik dakidan euskera ere
zuk erakutsi **zidazun***.



* ***niñun*** = *ninduen* ***txukun*** = *ederki*
neskameorde = *sehi, neskato* ***zidazun*** = *zenidan*